

# HIRUGARREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

**Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila**

## AHOZKO AZTERKETA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- Lehenengo ariketa aldeztu aurretik prestatu behar duzu.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

MINTZAMEN-PROBA Probaren ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez
<p><b>Aurkezpena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Ez da ebaluatuko.</li> <li>■ Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du. (Nor/ NANA/nongoa/lana).</li> </ul> <p><b>1. Ariketa:</b> Bakarka.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Aldez aurretik prestatuko duzun gai bat azaldu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.</li> <li>■ Gaia, hari buruzko argazkiak, informazio laburra eta galderak edukiko dituzu azalpena bideratzeko.</li> <li>■ Denbora: 4 min. azalpena egiteko eta 1 min. aztertzailearen galderei erantzuteko.</li> <li>■ Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio.</li> <li>■ 15 puntu.</li> </ul> <p><b>2. Ariketa:</b> Azterketarien arteko elkarrizketa.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan.</li> <li>■ Helburua iritzia trukitzea, argumentatzea, eta eztabaidatzea da.</li> <li>■ Denbora: 1min. fitxa begiratzeko, eta 10 min. elkarrizketan aritzeko.</li> <li>■ 15 puntu.</li> </ul>	<p>35-40 min.</p> <p>(15 min. gaia prestatzeko dira)</p>	<p>30</p>	<p>15</p>

## 3. HE

## (A fitxa)

## MINTZAMENA

- **1. ariketa:** Azaldu gaia eta eman zure iritzia.
  - 15 min. dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min. dituzu azalpena egiteko.
  - Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.

Kontuan hartuko dugu:

- gaiari heldu diozun,
- esaten duzuna ulergarria den,
- euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

### NOLA AURREZTU ENERGIA?

Energia aurreztean, dirua aurrezteaz gain, mundu iraunkorrago baten alde egiten dugu; energia eraginkortasunari esker, beti bezain eroso egongo gara, baina gutxiago kontsumituz. Izan ere, erabiltzaileok, herrialdearen energiaren %30 kontsumitzen dugu (%18 etxean eta %12 autoa erabiltzearen ondorioz). Etxean, sukaldea da energia gehien kontsumitzen den tokia, esaterako, hozkailuak etxeko elektrizitatearen %18 kontsumitzen du. Telebistak eta berogailuak ere energia asko gastatzen dute, familia baten gastuen %41, hain zuzen, eta horren ondoren ur beroaren kontsumoa legoke.

[www.eroski.es](http://www.eroski.es), 2009. Egokitua



Batzuetan, keinu txiki batzuek, esaterako, pertsiana jaisteak, edota hortzak garbitu bitartean ur txorrota ixteak gure etxeetako energia aurrezten laguntzen dute. Energia modu arduratsuan kontsumitzeak ingurumen-etorkizun hobeko harri-koskorra jartzea esan nahi du eta urrats oro da garrantzitsua. Etxeetako eguneroko jardueren ondorioz, berotegi-efektua sorrarazten duten gasen %25 isurtzen da. Esaterako, erosten ditugun produktuak garraiatzeko sortzen diren gasen ehunekoa %27ra iristen da, eta ez dago industriak isurtzen duen ehunekotik oso urrun (%34).

[www.repsol.com](http://www.repsol.com), 2009ko urria. Egokitua



- Ados al zaude Eroskiren web-orrian argitaratutakoarekin? Eman zure iritzia.
- Repsolen web-orrian argitaratutakotik zer nabarmenduko zenuke?
- Zein dira orokorrean energia aurrezteko modurik eraginkorrenak? Zergatik?
- Zure ustez, zein izan daitezke gehiegizko kontsumoaren ondorioak? Arrazoitu.

## 3. HE

## (B fitxa)

## MINTZAMENA

- **1. ariketa:** Azaldu gaia eta eman zure iritzia.
  - 15 min. dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min. dituzu azalpena egiteko.
  - Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.

Kontuan hartuko dugu:

- gaiari heldu diozun,
- esaten duzuna ulergarria den,
- euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

### KALEAK SEGURUAK OTE DIRA?

Irungo kaleetan ertzainen presentzia ohikoa da, droga-salerosketarekin batera, giro nahasia nagusi delako. Hori dela eta, Irungo Udalak segurtasun publikoa kontrolatzeko kamerak instalatu ditu azken urteotan bizilagunek eta merkatariek bizi izan duten segurtasun faltari aurre egiteko. Hala ere, denak ez daude ados neurri horrekin, kontrol soziala areagotzen duela uste baitute.

[www.bidasoamendia.info](http://www.bidasoamendia.info), 2008ko azaroaren 11  
Egokitua



Ia 300.000 kasu jaso zituzten 2008ko urtean Euskal Autonomia Erkidegoko Epaitegi Nagusian, aurreko urtean baino 25.000 gehiago. Delituen inguruan, bai dendetan eta baita kalean ere, batez ere diru-zorroak lapurtu zituzten. Bestalde, emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez, Nafarroa izan zen heriotza gehien izan zuen lurraldea (4 hilketa 2008an). EAEn 3 emakume hil ziren urte horretan.

[www.eitb.com](http://www.eitb.com), 2009ko ekaina. Egokitua



- Zer deritzozu kalean kamerak jartzeari? Zergatik?
- Zer nabarmenduko zenuke [www.eitb.com](http://www.eitb.com)-en esandakotik? Zer dela eta?
- Zure ustez, kaleetan kamerak jarrita, arazoa desagertu egingo litzateke? Zergatik?
- Zein izan daitezke egoera honetatik irteteko aukerarik eraginkorrenak? Arrazoitu.

**3. HE**

**(aztertzaileak)**

**MINTZAMENA**

- **2. ariketa:** Gaiaren inguruko eztabaida egingo dugu orain.
  - Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak eta informazioa.
  - Helburua: iritzia trukatzea, argumentatzea eta eztabaidatzea.
  - Denbora: 1min. fitxa begiratzeko, eta 10 min. elkarrizketan aritzeko.

Kontuan hartuko dugu:

- elkarrizketan zenbat/nola parte hartzen duzuen,
- esaten duzuen ulergarria den eta zelan arrazoitzen duzuen,
- euskara nola erabiltzen duzuen: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

**(A fitxa)**


**LANBIDE HEZIKETA, AUKERARIK ONENA**



- Goi-mailako Lanbide Heziketak **goranzko joera** du azken urteotan, ikasten diren trebetasunak eta gaitasunak **lan hobea lortzeko balio erantsia** baitira.
- **Krisialdian**, Lanbide Heziketa **behar-beharrezkoa** da, ahalik eta ondoen prestatzeko eta trebatzeko eta lehenbailehen **ekonomiari** onbideratzen **laguntzeko**.
- Ikasketak hauek **gero eta erakargarriagoak** dira gazteentzat.
- Ikasitako horretan **lan egiteko aukera handiak** ematen ditu; izan ere, gehienak ikasketak bukatu eta bi hilabeteren buruan hasten dira lanean.

**(B fitxa)**

**UNIBERTSITATEKO IKASKETAK, AUKERARIK ONENA**



- Unibertsitateko ikasketak egiteko **urte gehiago** eman behar baduzu ere, gerora **ondo ordaindutako lanak** aurkitzeko **aukera** ematen du.
- Garai batean gizartearen zati batek soilik zuen **goi-mailako ikasketak** egiteko aukera, baina unibertsitate publikoaren sorrerarekin **denon esku** geratu zen.
- **Boloniako Plana** delakoari esker, unibertsitateko ikasketa guztiek **balio bera** izango dute **Europako edozein herrialdetan**.
- Euskal Herriko Unibertsitateak **ia edozein ikasketa euskaraz** egiteko aukera ematen du, letretakoak zein zientzietakoak izan.

## LANBIDE HEZIKETA, AUKERARIK ONENA



- Goi-mailako Lanbide Heziketak **goranzko joera** du azken urteotan, ikasten diren trebetasunak eta gaitasunak **lan hobea lortzeko balio erantsia** baitira.
- **Krisialdian**, Lanbide Heziketa **behar-beharrezkoa** da, ahalik eta ondoen prestatzeko eta trebatzeko eta lehenbailehen **ekonomiari** onbideratzen **laguntzeko**.
- Ikasketa hauek **gero eta erakargarriagoak** dira gazteentzat.
- Ikasitako horretan **lan egiteko aukera handiak** ematen ditu; izan ere, gehienak ikasketak bukatu eta bi hilabeteren buruan hasten dira lanean.

## UNIBERTSITATEKO IKASKETAK, AUKERARIK ONENA



- 
- Unibertsitateko ikasketak egiteko **urte gehiago** eman behar baduzu ere, gerora **ondo ordaindutako lanak** aurkitzeko **aukera** ematen du.
  - Garai batean gizartearen zati batek soilik zuen **goi-mailako ikasketak** egiteko aukera, baina unibertsitate publikoaren sorrerarekin **denon esku** geratu zen.
  - *Boloniako Plana* delakoari esker, unibertsitateko ikasketa guztiek **balio bera** izango dute **Europako edozein herrialdetan**.
  - Euskal Herriko Unibertsitateak **ia edozein ikasketa euskaraz** egiteko aukera ematen du, letretakoak zein zientzietakoak izan.